# Manifestazio bateratua antolatu dute zazpi alderdik presoen alde

*EAJ, EA, HB, IU, Batzarre, Zutik eta ABk gaur aurkeztuko dute*

**Presoak Euskal Herrira ditzaten eskatzeko manifestazio bateratua antolatu dute zazpi alderdik: EAJ, EA, HB, IU, AB, Zutik eta Batzarrek. Alderdiek gaur egingo dute ekimenaren aurkezpena eta deialdia, jendeak urtarrilaren 9an Bilbon 'Euskal presoen eskubideen alde' leloarekin egingo den mobilizazioan parte har dezan. Ekimen horren iragarpenarekin batera, udaletan eta beste instituzioetan Senideek aurkeztu mozioak aztertzen jarraitzen dute.**



**Rubalkaba eta Otegi, elkar agurtzen, azaroaren 28ko manifestazioan.**
TXEMA FERNANDEZ / EFE

Erredakzioa / **Bilbo**

ALDERDIEK euskal presoen Euskal Herriratzea eskatzeko ekimen bateratua bultzatzea erabaki dute. EAJ, EA, HB, IU, Batzarre, Zutik eta AB dira presoen aldeko manifestazioaren bultzatzaileak, eta gaur egingo dute Bilbon ekimenaren aurkezpena. Xehetasun askorik ez badago ere, manifestazioa Bilbon izango dela aurreratu zuten atzo, hilaren 9an, arratsaldeko 17:00etan. Gisa horretako azken mobilizazioa azaroaren 28an egin zen, Bilbon, Senideek antolatuta. Ordukoan EAJk alderdi gisa ez zuen babestu deialdia, nahiz kide batzuek parte hartu zuten. EAJk, ordea, presoak Gabonetarako hurbiltzen ez bazituzten, urtarrilean mobilizatzeko asmoa iragarri zuen.

Ekimen horren inguruan, atzo gogor mintzatu zen Leopoldo Barreda PPko legebiltzarkidea. Senideak eta AABak PPko hautetsien etxe atarietan egiten ari diren kontzentrazioak salatu zituen alde batetik, eta bestetik EAJ, EA eta HBri gai horren inguruan jarrera argi bat hartzeko eskatu zien. «Jakin nahiko genuke EAJko buruzagiek horrelako ekintzak egiten dituztenekin batera manifestazio batean parte hartzeko asmoa duten».

**Mozioak udaletan eta Batzar Nagusietan** • Bien bitartean, presoen aldeko mozioak aztergai dira Euskal Herriko hainbat tokitan, eta EA eta EAJ haren alde agertu dira tokirik gehienetan. Atzo, esaterako, aipatu alderdiak Senideen mozioaren alde agertu ziren Arabako Batzar Nagusietan, IU eta HB lehendik ere alde zeuden. Horren ondoren, Ramon Rabanera PPko kideak esan zuen Arabako Aldundirako EAJrekin eginiko gobernu akordiotik kanpo geratzen dela.

Bestetik, Lezoko Udalak dei egin du Urtezahar egunean 19:00etan egingo den manifestazioan parte hartzeko. Udal horretan joan den hilean onartu zuten Senideek aurkeztutako mozioa, eta atzo, alderdietako ordezkariak (HB, EA eta EAJkoak) prentsaurrekoan agertu ziren jendearen parte hartzea eskatzeko. Deialdi horrek herriko elkarte eta hainbat talderen babesa jaso du.

Azkenik, Santutxun bihar arratsaldeko zortzietan Herrira auzo ekimenak antolatutako manifestazio bateratua abiatuko da Ritxi plazatik, presoak Euskal Herrira ditzaten eskatzeko. Aldi berean, preso gaixoak —Juan Pablo Dieguez besteak beste— eta zigorraren hiru laurdenak beteta dituztenak aske uzteko eskatuko dute. ✗

## NAFARROAKO DISPERTSIOAREN KONTRAKO ETA PRESOEN GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETOAREN ALDEKO DEKLARAZIOA

Behean sinatzen dugunok ondoko hausnarketak publikoki aditzera eman nahi ditugu:

- Presoaren jaioterritik edota bere ingurune sozialetik ahalik eta gertuen dauden espetxeetan kondena betetzea, nafar presoen kasuan Iruñeko espetxea, espetxetako legedian oinarriturik dagoen eskubidea da. (L.O.G.P., 12. Artikulua). Espetxetako politikak legearen eta giza eskubideen errespeturik zorrotzena bermatu beharra dauka, bestelako estrategien gainetik.
- Dispertsioak helburu politikoa dauka. Dispertsioa presoentzat, senideentzat eta lagunentzat kondenari gehitutako zigorra da. Neurri politiko hau mantentzeak giza eskubideen bortxaketa ahalbidetzen du, sufrimendua sortarazten du eta gizartean krispazioa bultzatzen du.

Presoen giza eskubideen errespetoa eta jaioterritik hurbilen dauden espetxeetara ekartzea ezin da inolaz ere egoera politiko zehatzen arabera baldintzatu. Beraz, legearen ezarpena ez da keinua, eskubidea baizik, eta errespetatu egin behar da edozein egoeraren gainetik.

Aipatutako guztia oinarritzat harturik, behean sinatzen dugunok dispertsioarekin amaitzeko eta legea eta presoen giza eskubideak errespeta-arazteko (kondenaren 3/4a beteta duten presoen baldintzapeko askatasuna, gaixotasun larri edo sendaezinak dituzten presoen askatasuna...) ekimen bateratuak bultzatzeko gure konpromezua publiko egiten dugu.

**Alderdi politikoak:**
E.A.
H.B|
EAJ-PNV
PCE-EPK
EUSKADIKO
GAZTERI
KOMUNISTA
BATZARRE
JUVENTUDES
DE I.U.-E.B.
Sindicatos:
L.A.B.
E.L.A.
ESK
E.H.N.E.
C.G.T.
STEE-EILAS

**Mugimendu sozialak:**
GESTORAS PRO-
AMNISTIA
CONSEJO DE LA
JUVENTUD DE
NAFARROA
KOMITE
INTERNAZIONALISTAK
IXIM
EMAKUME
INTERNAZIONALIST AK
S.O.S ARRAZAKERIA
GURASOAK
M.O.C.-K.E.M.
KAKITZAT
MALATXA
HAUTSI
KOORDINADORA
FEMINISTA
SALHAKETA
SOLIDARI@S CON
ITOITZ
ASKAPENA
EGIZAN
IRUÑEKO EUSKAL
JAI GAZTETXEA,
EGUZKI
EKOLOGISTAK
ANAT-LANE
SORTZEN
AEK
IKASLE
ABERTZALEAK
JARRAI
OINARRIAK
IKASTOLEN
ELKARTEA
ELKARRI
ZALDIKO MALDIKO

**NUPeko Irakasleak:**
EMILIO MAJUELO
KEPA ASTORKIZA
ENRIQUE GALARZA
EDUARDO LACASTA
JAVIER SUESCUN
ALBERTO GONZALEZ
Mª JOSE GOIKOETXEA
ALEJANDRO ARIZKUN
GREGORO MONREAL
PATXI SALABERRI
JUAN CARLOS LOPEZ

**Beste irakasleak:**
JAVIER DIAZ ESARTE
VICTOR MoRENO
JUANJO OLASAGARRE

**Elizako ordezkariak:**
JESÚS LEZAUN
RODOLFO IZAL
MIGUEL BEZUNARTEA
JUAN ERRO
ESTEBAN IRIGOYEN
PELLO APEZETXEA
J. JAVIER AIZKORBE
JESUS ETXEBERRIA
JESUS Mª ORTIZ
JUSTO JIMÉNEZ
VICENTE SAN MARTIN
MÁXIMO HERNANDORENA
VICTORINO ARANGUREN
MARCOS AZURMENDI
JOSE LUIS IRIGOIEN
ARANTXA JUARISTI
JUAN Mª ITURRIA
XABIER IRIGARAY
FERNANDO RAZKIN
JOAQUIN IRIARTE
AGUSTIN ETXEBARRIA
Y 11 FIRMAS MAS

**Peñak:**
LA JARANA
IRRINTZI
ARMONIA
TXANTREANA
GRUPO DE SOCIOS
DE LA PENA LA
ROCHAPEA
MUTHIKo ALAIAK
LOS DEL BRONCE
SAN JORGE-
SANDUZELAI
SAN FERMIN
LA UNICA

**Pilotirak:**
JULIAN RETEGI
GONI III
PATXI EUGI
GONI I
GOÑI II
OTXANDoRENA
APESTEGIA
BARRIOLA
ALMANDOZ
OLAIZOLA I
AUXKIN P. DE SAN
ROMAN
MIKEL ATXA
OLAIZOLA II
CERRO
IÑAKI ESAIN
APEZETXEA
(CAMPEOoN
MUNDIAL DE
AFICIONADoS)

**Beste kirolariak:**
MIGELTXO
SARALEGI
(Harrijasotzaile)
ROBERTO
MARTINEZ
RIPODAS, "TIKO"
(futbolista)

**Gogoa Foruko kideak:**
GUILLERMO
MÚGICA
(SACERDOTE Y
TEÓLOGO)
ROBERTO OIZ
CONCHITA CORERA
(PROFESORA DE LA
U.P.N.A)

**Besteak:**
GAIZKA ARANGUREN
(Kazetaria eta Telebistako
aurkezlea)
JoSE LUIS ZUMETA
(Margolaria)
IÑIGo ALToLAGIRRE
(Margolaria)
MIKEL KAMINO
(Dinamizatzaile
sociokulturala)
TXARO GARATE
(Koreografa)
JUAN GORRITI
(Eskultorea)
JoSE MANUEL ZUBILLAGA
(Artisaua)
JoN GoRRITI GARATE
(Artisaua)
JABIER YARNoZ
(Maisua)
JoSE MARI SARAGUETA
(Abokatua)

**Mendizaleak:**
MARTIN ZABALETA
FELIPE URIARTE
MARI ABREGO
JUAN Mª EGILLOR
PILI GANUZA
GREGORIO ARIZ
XABIER ERRO
KOLDO ALDAZ
NATXO BERRIUSO
RAUL MELERO
MIKEL ZABALZA
FERMIN IZKO
MIGUEL BERAZALUZE
INAKI ALDAIA
XABIER GARAIOA
J.M GARISOAIN
ALBERTO ORTIGOSA
JUAN Mª FELIÚ
JAVIER GARRETA

**Abogatuak:**
JOSÉ IGNACIO
URUÑUELA NAJERA
FELIPE GURRUTXAGA
ARRATIBEL
SOCORRO SOTES RUIZ
MARIBEL URZAINQUI
ZOZAYA
JOSÉ FERMÍN ARRAIZA
RODRÍGUEZ MONTE
TERESA ZABALEGUI
RECLUSA
JAVIER ZABALZA
LABORDA
JUAN JESÚS SORI
GULINA
CLARA GARCÍA
IRICIBAR
JUAN ANTONIO
CANTERO MANTAS
PEDRO Mª GARCÍA SOLA
ARACELI MARKOTEGI
ARBIZU
JOSE MIGUEL
GORTARI IZU
FRANCISCO JUAN
ZABALETA ZABALETA
BIXENTE NAZABAL
AUZMENDI
ANDRES PERCAZ
NAPAL
VÍCTOR LEAL GRADOS
AMAIA IZKOA RAMENDIA
JOSE MIGUEL GOROSTIZA
VICENTE JOKIN
ELARRE LES
LOURDES ETXEBERRIA
ZUDAIRE
IDOIA ZULET GALE
EDUARDO SANTOS ITOIZ
JOSE Mª NOVAL
GALARRAGA
JAVIER IGNACIO
VENTURA BARCINA
SUSANA FERNANDEZ
SERRANO
EDURNE GARDE
IRIBARREN
Mª ANGELES IDOATE
IRIBARREN
ASUN GALAR
MUTUBERRIA
PATRICIA MORENO
ARRARAS
CRISTINA CONTRERAS
LOPEZ
JOSEBA DONAMARIA
AZPARREN
BLANCA SANZ LOPEZ
SUAN
FELIX ISTURIZ AZKONA
ANA REKALDE ESEBERRI
MAITE GOYEN URRUTIA
Mª LUISA ORAYEN
INSAUSTI
Mª J0SE BEAUMONT
ARISTU
JOSE LUISBEAUMONT
ARISTU
FERNANDO SARALEGI
Mª JOSE INSAUSTI
GUELBENZU
MIREN KARMELE MENDEZ
VILLAGRASA
JOSE Mª OTAEGI
AURREKOETXEA
JOSE Mª LIZARRAGA ERREA
ANGEL IBAÑEZ OLCOZ
PABLO IBAÑEZ OLCOZ
MIGUEL NOGUERA VALES
ANGEL BALDA DONCEL
ASUN COMPAINS ROLAN
JOSE Mª COMPAINS ROLAN
JAVIER MARTINEZ
CHOCARRO

**Kazetariak:**
AMAIA LASA
ANA VALENCIA
BEGOÑA ELIZARI
BEGOÑA ELIZARI
CAMINO JIMENO
ELENA JIMÉNEZ
ELI ERASO
ELVIRA OBANOS
HELENA SUESKUN
IÑAKI ERREA
IÑAKI REDÍN
IZARO GOROSTIDI
JABIER PAGOLA
JAVIER BERGASA
JAVIER GARCÍA
JAVIER Mz. ZUÑIGA
JESÚS IRIBARREN
JOSEBA SANTAMARÍA
JUAN JESUS JUARISTI
LEIRE ARPOROSA
LEO VIRGOS
Mª JOSÉ ZIORDIA
MAITE ALBERDI
MARIAN GARCÍA RONCAL
MIKEL BUJANDA
MIKEL DONAZAR
MIRENTXU PURROY
NAIARA GORROÑO
REYES ILINTXETA
ROBERTO GÓMARA
ROBERTO SAIZ
KIKE DIAZ DE ULZURRUN
PEIO ARGINARENA
IBON GAZTANBIDE
IDOIA MARCELLÁN
JUAN KRUZ LAKASTA
OSKAR MONTERO
ASIER AZPILIKUETA
ALBERTO BARANDIARAN

**Margolariak:**
ANGELA MORENO
BELEN FLAMARIQUE
JAVIER VILLAREAL
JOAQUÍN RESANO
JOSÉ MIGUEL CORRAL
PEDRO OSÉS
PEIO AZKETA
ROSA SILVA
TXABI IDOIATE
XABIER MORRAS ZAZPE

**Beste erakundeak:**
MUGARIK GABE NAFARROA
COMISION 0'7 IRUÑEA
HEGAM
......... *eta sinadura gehiago.*

Nafarroako dispertsioaren kontrako plataformak Abenduak 31 izango diren kontzentrazietara dei egiten du, ***GABONETARAKO EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA*** lemapean.

DEKLARAZIO HONI ATXEKITZEKO, 948-21 23 07 FAX ZENBAKIAN